



A25-Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako IV. Kontakizun Laburren lehiaketaren oinarriak

Aranguren Ibarreko Berdintasuneko Zinegotzigoak azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunaren karira eta jendartea emakumeen aurkako indarkeriaren eta horren jatorri, ondorio eta konponbideen inguruan sentikortzeko **A25-Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako IV. Kontakizun Laburren Lehiaketa abiatu du.**

LEHIAKETAREN GAIK

- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna.
- Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako borroka.
- Indarkeria honen prebentziorako emakumeen ahalduntzea.

ONDORENGO OINARRI HAUEK ARAUTUKO DUTE LEHIAKETA:

Lehiaketan Aranguren Ibarrean bizi diren pertsona guztiek parte hartu ahalko dute.

Izen-ematea doakoa da.

Gehienez ere, pertsona bakoitzeko 3 kontakizun aurkeztu ahalko dira.

Adin txikikoak aurkeztu ahalko dira, beharrezko agiriekin batera ama, aita edo legezko tutorearen baimena aurkeztuaz adin txikikoaren parte-hartzea eta lehiaketako oinarriak onartuz. (III. eranskina)

Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dira baita aurretik saritu gabeak ere. Ez dira onartuko osorik edo zati batean, paperean edo birtualki argitaratu diren lanak. Era berean, ezingo dira aurkeztu beste lehiaketa, blog edo literatura jardueraren batean saritutako lanak ezta beste lehiaketetan epaiaren zain dauden lanak edo argialetxe batean argitaratuak izateko ebaluaziora aurkeztutakoak ere.

Kontakizun laburrak gaztelaniaz edo euskaraz aurkeztu ahalko dira.

Ezin izango dira lehiaketara aurkeztu Epaimahaikideak ezta Berdintasun Zinegotzigoratxikirik langileek ere.



KATEGORIAK

Ondorengo kategoriak egonen dira:

1. 16 eta 18 urte bitarteko adin txikikoak.
2. 18 urtetik gorako helduak.

SARIA

Lehiaketako kategoria bakoitzari sari bat (tablet-a)egokituko zaio.

FORMATUA

Lanak orri bakarrean aurkeztuko dira, izenburuarekin. Lan bakoitzeko bi ale aurkeztuko dira.

Jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira, fikziozko pertsonaiekin.

Gehienezko luzera: folio bat alde bakar batetik idatzia, izenburua barne. Letra mota: Arial 12, 1,5eko espazio tartekatuarekin eta 2cm-ko marjinarekin (*fitxategia/prestatu orrialdea/ezker eta eskuin marjinak*). Gaztelaniazko Word bertsioa izanik: *archivo/configurar página/margen izq. y derecho*). Formatu ezberdin batean aurkeztutako lanak **ez dira onartuko** eta, hortaz, haien edukia ez da kontuan hartuko.

LANEN AURKEZPENA

Lanak ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUKO erregistroan aurkeztu ahalko dira astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara (Mutiloa plaza z.g. Mutiloa).

Aurkeztutako lanak word dokumentuan eta aurretik adierazitako formatuan egonen dira. Beste orri batean (l. eranskina), bestelako informazio guztia aurkeztuko da: egilearen izen-abizenak, adina, NAN, AIZ edo pasaporte osoaren fotokopia, telefono zenbakia eta kontakizunaren izenburua.

Era berean, lanak bide elektronikoa erabilia aurkeztu ahalko dira ondorengo posta elektronikoa: igualdad@aranguren.es. Postaren GAIAN ondorengo adierazi beharko da: “**A25 Kontakizun Laburren IV. Lehiaketa**”. Idazkaritzak sarrera emanen dio data egokian aurkeztu dela ziurtatzeko.

Elektronikoki aurkeztutako lanak PDF-n egon beharko dira aurretik adierazitako formatuan. Beste orri batean (l. eranskina), bestelako informazio guztia aurkeztuko da: egilearen izen-abizenak, adina, NAN, AIZ edo pasaporte osoaren fotokopia, telefono zenbakia eta.

Horrekin batera, lana argitaratu gabea eta egileak osorik idatzia dela adierazten duen aitortpena ere atxiki beharko da.



EPEA

Lanak aurkezteko epea 2020ko urriaren 7tik azaroaren 9ra izanen da, biak barne. Epez kanpo jasotako lanak ez dira kontuan edukiko.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia Berdintasuneko, Gizarte Zerbitzuko, Kulturako, Gazteriako Arloetako teknikariek eta literaturan aditu batek osatuko dute, emakumeenganako indarkeriari buruz dituzten ezagupenen arabera. Saridunak erabaki eta epaia emateaz gain, honako oinarri hauek interpretatzeko gaitasuna izanen dute.

Lanak baloratzeko irizpideak honakoak izango dira:

- Lehiaketaren helburu eta gaiekin bat etortzea
- Literaturan argitasunez adieraztea.
- Edukia argitasunez adieraztea.

Epaimahaiaren erabakia irabazleari jakinaraziko zaio zuzenean.

“Emakumeenganako indarkeriaren aurkako IV. kontakizun laburren lehiaketaren” sari-banaketa jendurreko ekitaldian izango da. Lekua eta data zein izanen diren aurrerago jakinaraziko dira.

Saritutakoek sari banaketara joateko konpromisoa hartzen dute. Bertan, egun horretan prestatutako ekitaldien barruan saritutako lanak irakurri egingo dira.

Berdintasuneko Arloko buletinean argitaratuko da.

ARGITALPENA

- Oinarrietan azaldutako baldintzak bete eta epaimahaiaren iritziz saritutako kontakizunak Udaleko web orrian www.aranguren.es, Aranguren Telebistan, Berdintasuneko Arloko buletinean, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako buletinean eta abarretan argitaratu ahalko dira. Era berean, lan horiek berdintasunarekin eta emakumeenganako indarkeriarekin lotutako ekitaldietan eta jendartearen sentikortzea helburu duten bestelako ekitaldietan ere zabaltzeko ahalko dira.
- Saritutako lanak argitaratu, irabazi asmorik gabe zabaltzeko edo genero berdintasuna zein emakumeenganako indarkeriari buruz sentikortzeko erabiltzeko



eskubidea Aranguren Ibarreko Udalaren esku geratuko da, beti ere, egilearen eskubideei kalterik egin gabe, egilearen izena adieraziz.

BETEBEHARRAK

Ulertuztat joko da lanak aurkeztean egileek lehiaketako oinarri hauek guztiak onartzen dituztela. Oinarriak osorik edo zati batean ez betetzeak lehiaketatik kanpo gelditzea ekarriko du.

Aranguren Ibarreko Berdintasun Arloa ez da arduradun izango hirugarrenek lehiaketan aurkeztutako lanen plagioa edo erabilera okerra eginen balute.

Parte hartzaileek beregain hartzen dute jabetza intelektualari eta norbere irudiar buruz indarrean dagoen araudia betetzearen ardura. Halaber, arduraz adieraziko dute lehiaketa honetan zabalduko den lanak ez dituela parte hartzaileen edo hirugarrenen eskubiderik urratuko.

DATUEN BABESA

Trataeraren arduraduna: Aranguren Bailarako Udaletxea dpd@aranguren.es

Helburua: Datuak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira eta saritua izanez gero, pertsonarekin harremanetan jartzeko, saria kudeatzeko eta lehiaketaren emaitza argitaratzeko.

Legitimazioa: Lana aurkezteko eta lehiaketan izena emateko baimena emateagatik.

Mantentzeko epeak: Datuak kontserbatuko dira helburua betetzeko behar den denboran eta bere trataeragatik Udalak ardurak dituen bitartean babestuko dira. Halaber, 12/2007 Foru Legeak, apirilaren 4koak, Agiritegien eta agirien ingurukoak, ezartzen dituen kontserbatzeko arauak bete behar dira.

Datuen hartzaileak: Irabazle eta parte hartzaileen datuak, irudia, izena eta abizena barne, lehiaketan adierazten diren komunikabideetan argitaratuko dira. Halaber, indarreko arautegia betetzeko, bereziki zergakoa, jakinaraziko dira



Pza. Mutiloa sn 1ª planta / *Mutiloa plaza zg*
Tfno. 948 15 13 82
Fax 24 34 91
31192 MUTILVA / *MUTILVA*
NAVARRA / *NAFARROA*
www.aranguren.es

Eskubideak erabiltzeko: Datuen trataeran eta eramateko sarbidea erabiltzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurre egiteko eskubidea dago Aranguren Ibarreko udaetxera joz eta bere pertsonalitatea egiaztatzeko dokumentua erakutziz.

Halaber, kontrolatzeko eskumeneko autoritatean erreklamazioa aurkezten ahal duzula informatzen dizugu, hain justu, Datuen Babeseko Espaniar Agentzian, idatziz, Jorge Juan kaleko 6. zenbakira zuzenduz (Madril, 28001). edo bere egoitza elektronikoan idatziz, hau da, agpd.es.



(I. ERANSKINA)

PARTE-HARTZE ORRIA

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO KONTAKIZUN LABURREN IV. LEHIAKETA

ABIZENAK ETA IZENA	
SEXUA	
ADINA	
NAN/AIZ/PASAPORTE Z.K.	
HARREMANETARAKO TELEFONOA	
POSTA ELEKTRONIKOA	
KONTAKIZUNAREN IZENBURUA	



(II. ERANSKINA)

BAIMENA

Nik, NAN zk.eta izena dudan
J./And.-k, ama, aita edo tutore naizen aldetik,
izena..... duen adin txikikoari baimena
ematen diot Aranguren Ibarreko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN AURKAKO KONTAKIZUN LABURREN IV. LEHIAKETAN parte hartzeko.

..... (e)n, 2020koaren(e)an.

Sin.

Datuen Babesari buruzko argibidea:

Arduraduna: Aranguren Ibarreko Udaletxea.

Helburua: Datuak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira eta saritua izanez gero, pertsonarekin harremanetan jartzeko, saria kudeatzeko eta lehiaketaren emaitza argitaratzeko.

Eskubideak: Sarbidea erabiltzeko, zuzentzeko, ezabatzeko etabar eskubidea dago tokiko administraziora joz.

Argibidea gehigarria: lehiaketaren oinarrietan argibide gehiago dago.